

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5358

EBAZPENA, 2025eko azaroaren 21ekoa, Hizkuntza Politikako sailburuordearena, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak 2025eko irailaren 2an emandako Aginduan finkatutako dirulaguntzak esleitzen dituen.

Nagusiki gaztelania darabilten hedabideetan (eguneroko prentsan eta uhin bidezko irratietan) eta Internet bidez albisteak euskaraz ere ematen dituzten berri-agentzietan euskararen erabilera areagotzeko 2025eko dirulaguntzak emateko modua arautuz eta haietarako deialdia eginez Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak 2025eko irailaren 2an emandako Aginduak ezarritakoari jarraituz (EHAA, 2025eko irailaren 17an, 176. zk.) eta, aldi berean, Balorazio-batzordeak egindako proposamena gogoan izanik, honako hau,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.— Goian adierazitako Aginduan finkatutako baldintzak bete dituzten egitasmoak diruz laguntzea (I. eranskina).

2. artikulua.— Interesatuei ebazpen honen berri ematea.

3. artikulua.— Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, herritar orok jakin dezan eta ebazpenak jakinarazpen-ondorioak izan ditzan. Hala ere, argitalpena ez da oztopoa izango beste mota bateko jakinarazpena egiteko. Interesdunari bide batetik baino gehiagotatik egiten bazaio jakinarazpena, lehenik egin zaionarena hartuko da jakinarazpen-datatzat, 39/2015 Legearen 41.7 artikulua ezarritakoari jarraituz.

4. artikulua.— Laguntza-eskatzaileraren bat ebazpenarekin ados ez bada eta gora jo nahi badu, ebazpena berariaz jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabeteko epean Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari gorako errekurtsioa aurkezteko aukera izango du.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko azaroaren 21a.

Hizkuntza Politikako sailburuordea,
AITOR ALDASORO ITURBE.

ERANSKINA

DIRUZ LAGUNDUTAKO EGITASMOAK

A1 multzoa: nagusiki gaztelania darabilten egunkariak, paperean inprimatuak.

Eskatzailea	Egitasmoa	Espediente-zk.	Dirulaguntza	Ordainketak	
				2025 (% 60)	2026 (% 40)
Baigorri Argitaletxe, SA	Gara egunkaria eta Zazpika astekaria	002-EG1-2025	149.574,00	89.744,40	59.829,60
Ediciones Izoria 2004, SL	Diario de Noticias de Álava Noticias en Euskera Edición Impresa	003-EG1-2025	62.035,00	37.221,00	24.814,00
Editorial Iparraguirre, SA	Euskararen presentzia Deiaren paperezko edizioan	005-EG1-2025	74.345,00	44.607,00	29.738,00
Sociedad Vascongada de Publicaciones, SA	El Diario Vasco	001-EG1-2025	88.291,00	52.974,60	35.316,40
Urgull 2004, SA	Noticias de Gipuzkoa - Euskara paperean 2025	004-EG1-2025	75.755,00	45.453,00	30.302,00
Guztira			450.000,00	270.000,00	180.000,00

A2 multzoa: nagusiki gaztelania darabilten eta paperean inprimatzen diren egunkarien edizio digitalak.

Eskatzailea	Egitasmoa	Espediente-zk.	Dirulaguntza	Ordainketak	
				2025 (% 60)	2026 (% 40)
Ediciones Izoria 2004, SL	Diario de Noticias de Álava Noticias en Euskera Edición Digital	002-EG2-2025	60.670,00	36.402,00	24.268,00
Editorial Iparraguirre, SA	Euskal presentzia Deia.eus webgunean	005-EG2-2025	45.608,00	27.364,80	18.243,20
Sociedad Vascongada de Publikaciones, SA	diariovasco.com	001-EG2-2025	108.074,00	64.844,40	43.229,60
Tai Gabe Digitala, SL	Naiz	003-EG2-2025	147.363,00	88.417,80	58.945,20
Urgull 2004, SA	Noticias de Gipuzkoa - Euskara digitalean 2025	004-EG2-2025	88.285,00	52.971,00	35.314,00
Guztira			450.000,00	270.000,00	180.000,00

B multzoa: internet bidez notiziak euskaraz ere ematen dituzten berri-agentziak.

Eskatzailea	Egitasmoa	Espediente-zk.	Dirulaguntza	Ordainketak	
				2025 (% 60)	2026 (% 40)
Agencia Europa Press, S.A.	Agencia Europa Press SA (www.europapress.es)	002-EG3-2025	30.229,00	18.137,40	12.091,60
Indarweb XXI, SL	Agenciadenoticias.es	001-EG3-2025	19.771,00	11.862,60	7.908,40
Guztira			50.000,00	30.000,00	20.000,00

C multzoa: osorik euskaraz emititzen ez duten uhin bidezko irratiak.

Eskatzailea	Egitasmoa	Espediente-zk.	Dirulaguntza	Ordainketak	
				2025 (% 60)	2026 (% 40)
Radio Segura, SA	Radio Segura, SA	001-EG4-2025	50.000,00	30.000,00	20.000,00
		Guztira	50.000,00	30.000,00	20.000,00

Multzoa	Dirulaguntzak	Ordainketak	
		2025 (% 60)	2026 (% 40)
A1 multzoa	450.000,00	270.000,00	180.000,00
A2 multzoa	450.000,00	270.000,00	180.000,00
B multzoa	50.000,00	30.000,00	20.000,00
C multzoa	50.000,00	30.000,00	20.000,00
Guztira	1.000.000,00	600.000,00	400.000,00